



UDALERRIKO IHARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGAREN EXAKZIORAKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1.Artikulua.

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak finkatu ditu, iharduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 13/1989 Foru Araueko 10. eta 11. artikuluetan aurrikusitako ahalmenak erabiliz (ikus azken artikulua honen idazketa berria eman duen Premiazko Zerga Neurriei buruzko apirilaren 5eko 7/1991 Foru Araua).

II. GUTXIENEN KUOTEN PONDERAZIOA

2.Artikulua.

Udalerrri horretan zergapetutako ihardueretarako zerga honen tarifetan Foru Diputazio honek ezarri dituen gutxieneko kuotak 1. Eraskinean azaltzen den koefizientearen arauera gehituko dira.

3.Artikulua.

Udalerriaren barnean Zerga honek zergapetutako iharduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. artikulua arauera gehituko kuotei 2. Eranskinean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

4.Artikulua.

Gehikuntza koefizientea eta kokapen indizea, ordenantza honen 2 eta 3 artikuluetan hurrenez hurren finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialesi eta bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

5.Artikulua.

Aipatu 3. artikuluan esandako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egiten diren 2. Eraskinean erlazonaturiko kategorien arauera.

III. TRIBUTUZKO ZERGA

6.Artikulua.

Zerga honen tributuzko kuota tarifek finkatzen dituzten gutxieneko kuotez egongo da osatua, erantsiz koefiziente eta Ordenantza honetako 2 eta 3 artikuluetan ere, kasua balitz, Foru Errekarguaren arabera dagokion indizea.

IV. GESTIO ARAUAK.

7.Artikulua.

Zerga honen gestio, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak eskuordetu ahal izango dira Gipuzkoako Foru Diputazioarengana, Udal Batzarreak alde aurretik erabakitako eran, edukiarekin eta neurrian, eta horretarako hitzarmena sinatuz ondorioak izan behar dituen urteare hasiera baino lehen.

Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen seihilabetearen barruan. Era berean, argitaratuko da aldizkari horretan bertan hitzarmen horien salaketa.

Lehen zenbakian erabakitako horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienean.

V. AZKEN XEDAPENA.

Transkribatutako Ordennatza Fiskal eta horren 1. eta 2. Eraskinetako koefizienteak, indizeak eta bide publikoen kategoriak onartu zituen udal batzarreak, eraskinean esaten den egunean egindako batzarraldian, eta 1992ko urtarrilaren 1en sartuko da indarrean, eta erregalamentuaren arabera aldatzea edo derogatzen ez den bitartean aplikatutako da.

Hau guztia, Gipuzkoako Hazienda Lokala erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru arauko 16.4 artikulua agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulua horretan aurrikusten diren gainerako ondorioetarako.



Foro Araua horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa kouta, tarifa eta Ordenantzen finkapen eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra, interesatuek tartejarri ahal izango dute errekurtsio Kontentzioso-Administratiboa Euskal Herriko Justizia Gorenaren Auzitegian hartu aurretik, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitartzen diren lanegunaren biharamonetik hasita bi hilabeteko epean.

Hori bai, aipaturiko aginduak baimentzen duen moduan, interesatuak hautazko izaerarekin eta Kontentzioso-Administratiboaren bidearen aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko-Administratibo Foralaren aurrean erreklamazioa ipini dezake, aipaturiko argitalpenak GAO-ean publikatzen denetik hurrengo lanegunetik aurrera hilabeteko epean.

Mendaro, 1991ko abenduak 4. -Alkateak.

Eraskina 1

Batzarraldiaren data: 1991ko irailak 26.

Azken eguneraketaki

- 2000.ko irailaren 29.eko bilera, 2000.ko abenduaren 26ko 243 zkizko GAO-n publikatua. Finkatutako gutxienerako kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 1,1%

- 2005.ko urriaren 27ko bilera. 2005.ko abenduaren 30ko 247 zkizko GAO-n publikatua. Finkatutako gutxienerako kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 1,5%

- 2007.ko urriaren 20ko bilera 2007.ko abenduaren 31ko 253 zkizko GAO-n publikatua. Finkatutako gutxienerako kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 1,7%

Eraskina 2

Udalerriko bide publikoen sailkapena.

Kategoria: Bakarra